



FLYSCH GRAVEL 2023 ARAUDIA

1. EKITALDIAREN MODALITATEA:

- 1.1. FLYSCH GRAVEL 98 parte-hartzaile izango ditu gehienez eta irteera taldekatua izango da. FLYSCH GRAVEL topaketan izena emanda daukan pertsona orok adierazten du horren berri baduela.
 - 1.2. Ekitaldia non-stop, lehiarik gabeko eta autosufizientzia formatuan dago prestatua. Proba mota ikusita ez da ez laguntza-kotxerik ez anbulantziarik egongo.
 - 1.3. Pertsona orok ordaindu beharko du FLYSCH GRAVEL topaketan parte hartzeagatik. Ordainketak Erantzukizun Zibila aseguru hartzen du barne.
 - 1.4. FLYSCH GRAVEL **40 €** kostoa izango du.
 - 1.4. Parte hartzaileek ibilbidea GPS bidez jarraitu beharko dute. Ibilbidea ez dira seinaleztatuta egongo.
 - 1.5. Antolakuntzak FLYSCH GRAVELn beharrezko aldaketak egin edo topaketa bertan behera utzi ahal izango du eguraldi-baldintzak hala aholkatzen badu edo bere esku ez dauden arrazoiengatik.
 - 1.6. Partaideak ibilbidea utziz gero, derrigorrezkoa da ahalik eta azkarren jakinaraztea, telefonoz edo Telegram bidez.
 - 1.7. FLYSCH GRAVEL topaketa hasi baino aste bat lehenago emango da ibilbidearen tracka posta elektronikoz.
 - 1.8. FLYSCH GRAVEL topaketaren ibilbidea bide berdeak, bidegorriak eta oinezkoekin partekatutako errepideetatik igarotzen dira. Errepide hauetako arauak errespetatu behar dira.
 - 1.10. Lasterketa bat ez denez eta parte-hartzaileak trafikoko kodearen menpe daudenez, trafikoko agintariek esku hartu ahal izango dute.
- Beraz, ez dago lehentasun berezirik ibilbideko gainerako bide-erabiltzaileekiko.

2. IZENA-EMATEA:

- 2.1. FLYSCH GRAVEL topaketan 18 urtetik gorako pertsona guztiek har dezakete parte.
 - 3.2. "Parte-hartzaileen adierazpena" sinatuta aurkeztu beharko da, bertan parte hartzeak dakartzan arriskuen berri ematen duena eta antolatzailea FLYSCH GRAVEL topaketan parte hartzearen ondoriozko gorabehera edo istripuren bat gertatuz gero edozein erantzukizunetatik kanpo uzten duena.
- 2.2 Izenemate ordainketarekin, honako hauek emango dira:
- Ibilbidea gpx formatuan.
 - Erantzukizun zibileko aseguru.
 - Irteeran kafea
 - Bukaeran jateko eta edatekoak.
- 2.3. Izenematea gauzatu ondoren ez da onartuko itzulerarik. Edozein arrazoiengatik partehartzailea ezin badu atera FLYSCH GRAVEL topaketan, ez da dirurik itzuliko.
 - 2.4. Edozein arrazoi dela-eta FLYSCH GRAVEL topaketaren antolakuntzak ekitaldia bertan behera uzten badu, ez da dirurik itzuliko.



4. BALDINTZAK:

- 4.1. Parte-hartzaileek mugikorra kargatuta eta konektatuta eraman behar dute uneoro bertaratu ahal izateko. Gomendagarria da kanpoko bateria edo dinamo bat eramatea mugikorren erabilera bermatu ahal izateko, eta baita GPSa ere.
 - 4.2. Parte-hartzaile guztientzat derrigorrezkoa da kaskoa erabiltzea eta bizikletako argiak.
 - 4.3. Parte-hartzaileek zirkulazio-arauak errespetatu beharko dituzte. Ibilbideetan hesi ugari daude. Hesiak eta atakak igaro ondoren, aurretik aurkitzen diren moduan utzi behar dira.
 - 4.4. Parte-hartzaileek onartzen dute zaborrik ez botatzea eta ingurugiroa eta kultura-ondarea errespetatzea pasatzen diren leku guztietan.
 - 4.4. FLYSCH GRAVEL autosufizientzia formatuan dago antolatuta, hau da, partaideak autosufizienteak dira eta ibilaldirako behar duten guztia eraman behar dute partaideek.
- Ibilbidean zehar janaria eta bizikletarako beharrezkoak erosteko aukera izango dute. Larrialdi kasuan 112 zenbakira deitu ahal izango dute partaideek.
- 4.6. Bizikleta elektrikoak onartzen dira, baina antolakuntzari jakinarazi behar zaio.
 - 4.7. Ez da trakziorik onartzen norberaren indarraz gain, bizikleta elektrikoa izan ezik.

5. DERRIGORREZKO MATERIALA:

- Derrigorrezkoa da atzeko eta aurreko argiak eramatea.
- Mugikorra,geolokalizatzailea eta GPSa piztuta ekitaldi osoan.
- Bi gurpil-kamera eta kate-konpontzailea.
- GPSan ibilbidea jarrita.
- Manta termikoa.
- Kaskoa.
- Txifloa.
- Sorospen botikina (desinfektatzailea, bendak eta gasa).
- NAN edo pasaporte eguneratua.

6. ONARPENAK:

- 6.1. Antolakuntzak kanporatu ahal izango ditu FLYSCH GRAVEL topaketako ibilbideak ezinezkoa egiten duten pertsonak, araudia betetzen ez dutenak edo argibideak betetzen ez dituztenak.
- 6.2. Parte-hartzaile guztiek araudia irakurri, onartu eta betetzen dutela onartzen dute.
- 6.3. Parte-hartzaileak, FLYSCH GRAVEL topaketan izena emateagatik, arautegi honetako puntu guztiak onartzen ditu. Arauetakoren bat ez betetzeak parte-hartzailea deskalifikatzea ekar dezake.

7. ANTOLATZAILEAREN ESKUBIDEAK:

- 7.1. Istripurik gertatuz gero, parte-hartzaileak ahalik eta azkarren jakinarazi beharko dio antolakuntzari. Antolakuntzak ez du bere gain hartuko parte-hartzaileak ekitaldian izan ditzakeen kalte posibleen erantzukizunik.



7.2. Ez ekitaldiaren sustatzaileak, ez antolatzaileak, ezin dira ekitaldian zehar gerta daitezkeen trafiko eta banakako istripuen erantzule izan. FLYSCH GRAVEL topaketan, parte-hartzaileak ibilbide pertsonala egiten ari dela onartzen du.

Topaketa hau ez denez lehiaketa eta lasterketa ere ez, parte-hartzaileak trafiko kodearen menpe daude. Trafikoan eskumena duten agintariek esku hartu eta agindu ahal izango dute beren irizpideen arabera. Beraz, ez dago lehentasun berezirik aurreikusitako ibilbidearen parte diren beste bide-erabiltzaileekiko.

7.3. Antolakuntzak FLYSCH GRAVEL topaketan parte-hartzeko eskubidea gordetzen du.

7.4. Antolakuntzak Zirkulazio Arautegi Orokorra errespetatzen ez duten partaideen kasuan agintariei jakinarazteko konpromisoa hartzen du.

Arauk errespetatzen ez dituzten guztiak, ekitalditik kanporatuak izango dira.

7.4. Araudia alda daiteke antolatzailearen beharraren arabera.

Izenemateak esan nahi du araudi honetako puntu guztiak onartzen direla.

7.5. FLYSCH GRAVEL topaketako partaide bakoitza bere segurtasunaren erantzule da eta antolakuntza edozein motatako erantzukizunetatik libratzen du.

8. MEDIKU LAGUNTZA BEHAR BADUZU:

8.1. Istripurik gertatuz gero, ahal den guztietan, FLYSCH GRAVEL topaketaren antolakuntzarekin harremanetan jartzea gomendatzen dugu. Horrez gain, partaidearen erantzukizuna da 112 telefonora deitzea.

8.2. FLYSCH GRAVEL topaketako partaideak, topaketan parte hartu izanagatik, uko egiten dio antolatzailearen edo sustatzailearen aurkako legezko akziorik eragiteari. FLYSCH GRAVEL topaketaren antolatzaileak ezin dira topaketan gerta daitezkeen istripuen erantzule izan.

8.3. Matxura mekanikoagatik edo beste egoeraren batengatik ibilbidea bertan behera uzten duen partaideak, FLYSCH GRAVEL topaketaren antolakuntzarekin harremanetan jarriko dira.

9. IRUDI ESKUBIDEAK, LOPD eta PRIBATUTASUN POLITIKA:

9.1. Araudi hau onartzeak nahitaez esan nahi du parte-hartzaileak FLYSCH GRAVEL erakundeari baimena ematen diola bere parte-hartze osoa edo zati bat grabatzeko eta onartzen duela bere irudia FLYSCH GRAVELren irudi gisa erabiltzea bere forma guztietan (irratia, telebista, prentsa, bideoa, argazkia, DVDa, Internet, kartelak, euskarriak, etab.) FLYSCH GRAVEL bera sustatzeko eta zabaltzeko erabil daitekeelarik. Parte-hartzaileak bere merkataritza- eta publizitate-ustiapenarekin lotutako irudi-eskubide guztiak lagatzen ditu, bere aldetik inolako kalte-ordain ekonomikorik jasotzeko eskubiderik gabe.

9.2. Antolakuntzak bermatzen du Datu Pertsonalak Babesteko araudia guztiz betetzen dela eta, horrela, 14/1888 Lege Organikoaren arabera, parte-hartzaileari jakinarazten zaio eta onartzen du antolatzailearen fitxategi automatikoetan bere datuak sartzeko eta horiek tratatzeko eskubidea, administrazio-prozedurak, merkataritza-prozedurak eta bestelako jarduera propioak gauzatzeari dagokionez erabiltzeagatik.

9.3. Parte-hartzaileak onartzen du bere datuak laga daitezkeela antolatzailearen barne kudeaketa eta administrazioa behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren jardueretarako soilik. Era berean,



parte-hartzaileak onartzen du antolatzaileak FLYSCH GRAVELri eragiten dioten albiste, izapide edo zerbitzuei buruzko informazioa bideratzen duela. Parte-hartzaileak bere datuak paragrafo honen moduan tratatu edo laga ditzaten onartzea ezeztazina da, atzeraeraginezko ondorioz gabe, abenduaren 13ko 14/1888 Lege Organikoaren 5. eta 11. artikuluetan xedatutakoaren arabera.